

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2012ko irailaren 28a. IX. urtea. 2.407. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Tolosaldeko begirada Katalunian piztu den independentzia grinari

**Joxe Arias**

Gaztelun bizi den kataluniarra

«Izugarria izan zen herritarren erantzuna; gauzak eztabaidatzeko unea da»

**Aloña Gorostidi**

Katalunian bizi den billabonatarra

«Deigarriena Diada eta gero balkoietan jarritako senyera kopurua da» **07**



LURKIZU

→ **Pornografiarako sarbidea.** Tolosako BOX.A elkarteak *Pornografia* izeneko erakusketa inauguratuko du gaur, 19:00etan, Aranburu jauregian. Tabuak apurtu nahi dituztela diote eta ikusleen parte hartzea eskatzen dute: «Etorri egin behar da, ikusi, eta norberak aterako du bere ondorioa». Inaugurazioan Igelaren Bandak joko du. **02**



**Juanfe Garces**

'Leku hutsak, hitz beteak' dokumentalaren errealizadorea

«Bernardo Atxaga ezagutzea izan da aberasgarriena»

Elkarrizketa **05**

**Iruran eta Tolosako Aldaba eta Alliri auzoetan, jai giroa asteburuan**

Sanmiel jaien bigarren asteburua ospatuko dute Iruran; Aldaban bihar botako dute txupinazoa **03**

**Azoka berezien eguna izango da igandean, Asteasun eta Alegian**

Bi udalerrietan herritarrek hainbat postu jarriko dituzte; Asteasun ganadu erakusketa egingo dute **03**

**FUNERARIA VASCONGADA EHOZKETAK**  
902 402 900  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

**TOLOSA**  
Kondeko Aldaba, 5  
943 - 67 00 40

**VILLABONA**  
Larrea Polg. 34 - 1  
943 - 69 48 73

## Peio Zelarainen askatasuna eskatzeko kartelada bat egingo dute ostegunero

Auzitegi Gorenaren ebazpen baten arabera, preso billabonatarra kalean behar zuen jada **04**



Peio Zelarainen alaba eta emaztea, Villabonan . A. IMAZ



Ingelesa 1go urtetik · Metodo propio eta desberdina · Talde txikiak  
Zaloz Kids&Us ezagutzera!!  
Kids&Us Tolosa-Iurre Auzoa, N°17-18 Buzo 20400 Tolosa-T. 679 360 711  
[tolosa@kidsandus.net](http://tolosa@kidsandus.net) · <http://tolosa.kidsandus.es>  
[www.kidsandus.es](http://www.kidsandus.es)



Pornografiaren gaiari hainbat ikuspegi eta euskarritatik heldu diote BOX. Ako antolatzaileek. I. URKIZU

## Tabuak apurtuko ditu, Aranburu jauregian, 'Pornografia' erakusketak

BOX. A elkarteak antolatu du erakusketak, eta gaur inauguratuko dute, Igelaren Bandaren kontzertuarekin

**Itzea Urkizu** Tolosa

Sexuaren inguruko tabuak apurtzeko aukera izango da, gaurtik aurrera, Aranburu jauregian inauguratuko duten *Pornografia* erakusketan. 19:00etan inauguratuko dute, Igelaren Banda taldearen kontzertuarekin.

*Chupa, Chupa, palomita* film pornografikoa BOX. Ako kideen eskuetara iritsi zenean sortu zitzairen erakusketarako ideia, kideetako batzuek azaldu dutenez: «Lanean hasteko gai interesgarria iruditu zitzaigun hasieratik, gaur egun pornografiak gizartean duen kutsuagatik eta egoeragatik».

Ido nagusia, izenburua argi uzten duen moduan, pornografia izango da, baina esparru honeta-

tik atera gabe, «askotariko lanak eta hainbat kontzeptu» daudela nabarmendu dute BOX. Ako kideek: «*Pornografia* hitzetik hasten da dena, baina gela bakoitzean, gutxienez, gai bat jorratzen da; beste gela batzuetan, berriz, lauzpabost gai daude».

Antolatu duten erakusketari buruz azalpenik ematea «oso zaila» dela azaldu dute BOX. Ako kideek. Horrela beraz, erakusketak bat baino zerbaite gehiago izango da, gaurtik aurrera Aranburun ikusi ahal izango dena; bertaratuek parte hartzeko muntaia prestatu dute BOX. Ak, eta horretarako deia luzatu diete herritarrei, gainera: «Jendea bertaratu eta eurek parte hartzea behar-beharrezkoa da erakusketak honetan. Etorri egin behar da, ikusi egin behar da, eta norberak ateraria du bere ondorioa erakusketak honetatik».

### Sormen kolektiboa

BOX. A elkarteak kideek azpimarratu nahi izan dutenez, «hausnarketa pertsonaletatik abiatu

garen arren, ondoren pare bat buelta eman dizkiogu guztiari, erakusketan ideia horiek zein forma har zezaketen erabakitzeko; ideia nola materializatu erabakitzeko».

Honenbestez, artelanak ez dira individualak azpimarratu dute, eta guzti-guztia talde elkarlanean burutu dutela.

Guztira, BOX. A elkarteak hamar lagun aritu dira, era aktiboa, *Pornografia* erakusketarako lanean.

### Irekiera musikatu, gaur

Pornografiaren mundura begira jarri eta tabuak apurtzeko erakusketak gaur iluntzean irekiko dute, 19:00etan.

Igelaren banda musika taldeak girotuko du inaugurazioa, gainera, Bixente Martinez, Hasier Oleaga eta Amaier Cajaraville musikariaren eskutik.

Bertaratuek, sexu-desirak idazteko aitorlekuan sartu eta beren nahiak papertxoetan era anonimoz idazteko aukera izango dute, eta baita zakila neurtu eta jarraian neurria taula batean apuntatzeko ere. Era berean, argazkiak, irudiak nahiz bi proiektzio ikusgai izango dira.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Etxeko lanak.** Etxeko lanak egiteko, bahiz umeak edota adineko pertsonak zaintzeko, emakumeak bere burua eskaintze du. Interesatuak, deitu 696 40 97 73 telefono zenbakira.

## Eskualdeko bost enpresa Mexikon dira elkarlan bila

Mexiko, euskal enpresentzat, lanerako eremu «estrategikoa» dela nabarmendu dute

### I. Urkizu

Tolosaldeko bost enpresatako ordezkariak Mexikon barrena dabilta azken egunotan, merkatu berriak ezagutu eta bertako enpresarekin elkarlanak aurkitzeko helburuz; gaur bertan itzuliko dira.

Tolosaldea Garatzen agentziak eta Lehiberrik hirugarrenez antolatutako nazioarteko misio komertziala da hau, eta lan agendak prestatzeko, Mexikoko Eusko Jaurilaritzako ordezkariaren bulegoarekin elkarlanean aritu dira.

Horrela beraz, askotariko jarduerak burutzen dituzten bost enpresatako ordezkariak bidaiatu dute Mexikora, egitasmo komertzialaren harira. Batzuek mekanizaturako galdaketa-osa-gaien produkzioa dute jardun nagusi; beste batzuek, berriz, flegadora automatikoak ekoizten dituzte; paperaren mozketan eta eraldatzean aritzen den enpresa bat ere bada, eta baita osagaien mekanizaturako eta makina meka-

nikoen fabrikazioa jorratzen duen ere; azkenik, industria mantentzerako zerbitzu teknikoak eskaintzen dituen beste enpresa bat ere ordezkariak ere bertan dira.

### Mexiko, leku estrategikoa

Nazioarteko misio komertzial honen helbururik behinena, Mexikon bezeroak, hornitzaileak, bazkideak eta bestelakoak aurkitzea, eta eurekin elkarlana sustatzea da, Lehiberrik eta Tolosaldea Garatzenek azpimarratu dutenez.

Modu honetara, Tolosaldeko enpresak Mexikon bertan ezartzeko aukera sor liteke, eta enpresa hauek euren produktuen salerosketarako banatzaileak lortuko lituzkete.

Besteak beste, eta jomuga hori lortzeari begira, Mexiko Hirian, Monterrey-n eta Queretaro-n elkartu dira enpresariak.

Bide beretik, pasa den astelehenan, Emprebask (Mexikoko Eusko Jatorriko Enpresariaren Elkarte) eta Mexikoko Espainiar Enbaxadako Ekonomia eta Merkataritza Bulegoko ordezkariak ere elkartu ziren Tolosaldeko enpresatako ordezkariak.

Lehiberrik eta Tolosaldea Garatzen-ek, hau guztia euskal enpresentzat «estrategikoa» dela nabarmendu dute, Mexikoren kokapen geografikoa, AEBetatik gertu, «estrategikoa baita».

## Udaberriko ikastaroetako zerrendak ikusgai

Datorren urriaren 5a eta 6a izango dira ikasturteko lehen eskola egunak, Usabal kiroldegian

### I. Urkizu

Tolosako Udaberri dantza taldeak 2012-2013 ikasturterako antolatu dituen ikastaroetako zerrendak ikusgai dira jada, taldearen webgunean. Datorren urriaren 5a izango da ikasturteko lehen eguna, eta aurten ostiral arratsaldetan nahiz larunbat goizetan izango dira dantza ikastaroko esgolak, Usabal kiroldegian.

Dantza taldeak ekainean zabal-

du zuen izen-ematea, eta iraileko lehen asteburura bitarte zabalik egon eta gero, zerrendak osatu dituzte neska-mutilekin.

Bakoitzak bere ordutegia nahiz irakaslea zein diren ezagutzeko, <http://www.udaberri.com> webgunean sartu bestetik ez du egin behar; zerrendak nahiz ordutegiak ikusi ahal izango dira bertan.

### Helduak ere dantzan

Azken urteotako ohiturari jarraituz, ikasturte honetan ere helduei zuzendutako dantza ikastaroak eskainiko ditu Udaberri dantza taldeak, eta datozen asteotan ezagutaraziko dituzte honen inguruko zehaztapenak.

● [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Azokek giro berezia jarriko dute Asteasun eta Alegian

Alegian IV. Azoka Berezia egingo dute eta Asteasun XIII.a izango da; iganderako antolatuta dituzte bi herrietan

**Imanol Garcia Landa**

Bi azoka berezi izango dira aukean igande honetan, eskualdean: Asteasun eta Alegian. Herritarrek zein bisitariek egun pasa edo goiz pasa egiteko eta hainbat produktu etxera eramateko aukera izango dute.

XIII. Azoka Berezia egingo dute Asteasun. 60 postu inguru izango dira, horietatik 20 bat herrikoak. Frontoian eta plazan egongo dira eta bertan denetarik erosteko aukera izango da: artisautea, gaztak, gozoak... Horrez gain, Gipuzkoan egiten den esne behien erakusketa bakarra, eta esne behien lehiaketa egingo dira

Ibargai soroan. Ganadu guztia Asteasuko baserrietakoa izango da. 12:30ean hasiko da erakusketa eta ondoren egingo dute sari banaketa.

Ez da faltako ere arroz esne lehiaketa. Herriko jatetxeetako ordezkariak izango dira epaimahai eta sari banaketa 12:00etan egingo dute frontoian. Leku berean, ohiko mikologia erakusketa izango da, Aranzadi elkartearen eskutik. Bestalde, aurtengo berritasuna txekor errearen pintxoak izango dira. Txekorra, Asteasuko baserri batekoa, plazan bertan erreko dute eta 11:00etan hasiko dira pintxoak saltzen udalak jarzten duen tabernan. Azokaren irekiera 10:00etan izango da eta goiz eta arratsaldez egongo da zabalik.

## Barazkiak protagonista

Alegian IV. Azoka Berezia antolatu dute. Bertan 26 postu jarriko dira, inoiz baino gehiago, eta ia de-

nak herrikoak. Barazkiak, tartean ekologikoak, izango dira azokaren protagonistak. Abererik ez da izango, baina ez dira faltako gozoak, gazta eta artisautea lanak. Lehenengo aldir txori txabolen postu bat jarriko dute, eta herriko saltokien parte hartzea ere bada aurtengo berritasunetako bat; udaletik gonbidapena egin zieten eta bi arropa dende postua jarriko dute. Bestalde, aurtengo bigarren aldiz eta iazko arrakasta ikusita, piper erretzaileak izango dira. Sutarri dantza taldeak taloak salduko ditu eta Aralar institutuko hainbat ikasle ere euren gozoak saltzen ariko dira.

Azoka 10:00etan hasiko da eta 14:00ak arte iraungo du. Herriko plazan eta taxi geltokian izango dira postuak. Udalak hamaiketako eskainiko die postua jartzen dutenei. Azokaren helburua kale giroa sortzea eta herritarrek euren produktuak erakutsi eta saldu ahal izatea da.



Iazko Asteasuko Azoka Berezian irudietako bat. SARA GOMEZ



Alegian, iaz bezala, barazkiak erosteko aukera izango da azokan. SARA GOMEZ

## Eskualdeetako korrikalari ugari parte hartu dute Beriaingo igoera bertikalean

Nerea Amilibia zizurkildarra hirugarren sailkatu da, eta Hassan Ait Chau billabonatarra zortzigarren

**I. Garcia Landa**

Uharteko Arakil-Beriain 4. Kilometro Bertikalean Tolosaldeko eta Leitzaldeko korrikalari ugari parte hartu zuten. Igandean jokatu zen eta emakumezkoen mailan Nerea Amilibia zizurkildarra hirugarren bukatu zuen, 53:24ko denborarekin. Aitziber Ibarbia zizurkildarra bosgarren amaitu zuen proba, 54:58ko denborarekin.

Gizonezkoetan Hassan Ait Chau billabonatarra zortzigarren egin zuen, 46:37ko denborarekin; Pedro Garduño anoetarrak 22., 49:26rekin; Eneko Garmendia ballaraindarrak 23., 49:35rekin; Aitor Urkola anoetarrak 28., 50:20ko denborarekin; Inigo Lizarribar berastegiarrak 52., 53:21ko denborarekin; Julen Lizarraga leitzarrak 57., 54:16rekin; eta Iraitz Zubeldia abaltzisketarrak 74., 55:43ko denbora eginez. Guztira 162 korrikalari izan ziren.

# Festazaleentzako aukera, gaurtik hasita

Iruran eta Tolosako Aldaba eta Alliri auzoetan festa giroa izango dute asteburu honetan

**I. Garcia Landa**

Iruran herriko jaien bigarren asteburu izango dute, eta Tolosako Aldaba auzoan, berriz, asteburu honetan ospatuko dituzte sammielak. Tolosako beste auzo bat ere gehitu zaie ospakizunetara, Alliri auzoan festa eguna egingo baitute, etzi.

Gaur berreskuratuko dituzte Iruran jaiak eta etzi arte ekitaldi ugari izango dira. Nabarmen zeko izango da Play Back jaialdia; aurtengoa 29. urtea beteko du eta parte hartze handia izan ohi du herri-tarren aldetik. Larunbatean herri hamaiketakoak eta III. Aretoko Triatloia jendearakiko du. Igandean, goizean dantzak izango du protagonismoa eta arratsaldean bertsoak.

Aldaban mahaiaren inguruan maiz elkartuko dira, asteburu hamaiketako, zahagiardoa eta herri bazkaria izango baitituzte. Txirindulari igoerak ere ikusmina sortuko du. Allirin ederki aprobetxatuko dute etziko eguna, goizetik hasita ia orduro ekitaldiak izango baitituzte auzokideek eta bertara joaten direnek.

## ↓ Egitarauak

### IRURA

#### IRAILAK 28, GAUR

- 17:30. Urmeentzako *Kultura* plazara ikuskizuna Irrien Lagunak Kluba taldearen eskutik.
- 19:00. Kalejira buruhandi eta erraldoekin, eta Loatzoko Musika Eskolako txistulariekin. Ondoren, txistor jatea Share Elkartearen atarian.
- 19:30. Herriaren aldarrikapen ekimena. Anoetatik Irurarako bidea egingo dute elkarretartzean, euskal preso eta iheslarien eskubideen alde.
- 22:30. 29. Play Back jaialdia. Parte hartzaileek musika MP3 formatuan eraman beharko dute 21:30erako.
- 00:00. Dantzaldia Gugaz taldearekin.

#### IRAILAK 29, BIHAR

- 09:00. Diana txistulariekin.
- 11:00. Meza nagusia.
- Ondoren. Herri hamaiketako plazan, eta Gazte Alaiak Elkartearen.
- 18:30. III. Aretoko Triatloia: Anoetako eta Irurako taldeen arteko norgehiagoka.
- 23:00. Dantzaldia Laiotz taldearekin.

#### IRAILAK 30, ETZI

- 10:30. Anoeta, Villabona, Iba-

rra eta Irurako dantzari txikien emanaldiak plazan, eta kalean zehar.

- 13:00. Dantza soka.
- 14:30. Herri bazkaria.
- 19:00. Bertso saioa plazan. Bertsolariak: Sustrai Colina, Jon Maia, Alaia Martin eta Agin Rezola. Gai jartzailea: Aitor Mendiluze.
- 21:00. Herensugearen erre-tzea.

### ALDABA

#### IRAILAK 29, BIHAR

- 11:00. Txupinazoko jaien hasiera iragarriko du.
- 11:30. Meza nagusia.
- 12:30. Hamaiketako herritarrentzat. Jarraian toka txapelketa.
- 18:00. Karta txapelketa eta haur txokoa.
- 21:30. Zahagiardoa. Eserleku eta edaria egongo da (sagar-doa eta ardoa); gainerakoa norberaren esku.

- 23:30. Erromeria, Laja eta Mikel trikitalariek.

### IRAILAK 29, BIHAR

- 11:00. Meza nagusia.
- 12:00. Aldabako IV. Txirindulari Igoera.
- 14:00. Herri bazkaria. Jarraian Joseba Maiz eta Iban Maiz trikitalariak eta Endika Igartzabal eta Gorka Maiz bertsolariak.

### ALLIRI

#### IRAILAK 29, BIHAR

- 09:00. Banderatxoaren igoera auzotarren musika kalejirak la-gunduta.
- 10:00. Suziria eta zapi jartzea.
- 11:00. Haur jolasak.
- 12:30. Buruhandiak.
- 14:00. Herri bazkaria.
- 16:00. Ipuin kontaketa.
- 18:00. Txokolate jatea.
- 19:00. Alliriko II. Toka Txapelketa.
- 20:00. Sardina jatea. Ondoren, 01:00ak arte, jai giroa.

Taberna - Jaletxea

## Zaharren Biltokia

Sammielak, ondo pasa!

- Aste osoan eguneko menua
- Zure aurrekontura egokitzen gara
- Menu bereziak

Tel.: 943 69 26 32 • Mikel Deuna Plaza, 8 • IRURA

# Auzitegi Gorenaren aldeko ebazpena izan arren, Peio Zelarain espetxean dago

Ostegunero, 19:00etan, kartelada bat egingo dute Villabonan, euskal presoaren askatasuna eskatuz

Asier Imaz Villabona



Birjina Zelarain eta Maite Ortiz, Peio Zelarainen alaba eta emaztea. A. IMAZ

Peio Zelarain billabonatarra Villanako espetxean dago, Alicanten (Herrialde Katalanak). Espainiako Auzitegi Gorenak aurtengo uztailean kaleratu zuen ebazpenaren arabera, Zelarainek espetxea 2011ko maiatzean utzi behar zuen. Ebazpen hori noiz beteko duten zain daude billabonatarren senideak. Bizitzen ari direna, euskal presoaren aurkako mende-ku politikaren ondorioetako bat dela diote: «Villabonako jaietan kaleratu zuen ebazpena Espainiako epaitegiak, eta bai abokatuak eta bai guk aske utziko zutela pentsatu genuen, baina oraindik espetxean dago; izugarritzko desengainua izan zen».

Zelarain atxilotzera 1987an joan ziren bere etxera. Bera aurkitu ez, eta bere emaztea atxilotu zuten: Maite Ortiz. 13 urte beranduago atxilotu zuten Zelarain, Mexikon. Bere aurkako agindua zabaldu zutenetik atxilotu arteko epe horretan, delitua preskribaturik gelditu zen. Zelarainen emaztearen eta alaba Birjiniaren

larainen esanetan, «hau horrela zela ikusita, atxilotze aginduaren data atzeratu egin zuten, eta Peio espetxean sartu zuten».

ETAren lotura izateagatik jarritako kondena, senideen esanetan «bete behar ez zuena», 2013an amaituko litzateke, baldin eta errendentzioak ez balira egongo. Errendentzioak espetxe zigorraren murrizketak dira. Preso batek bi errendentzio mota ditu: arruntak edo ezohikoak. Zelarainen alabaren esanetan, «euskal preso politikoei 2007an hasi zitzaizkien aplikatzen errendentzioak». Hauek kontuan hartuta Zelarainek espetxean jarraitzen zuela ikusita, bere abokatuak espetxe zuzendaritzari preso billabonatarra askatzeko eskatu zion, Maite Ortizen esanetan: «Ezetzkoa esan ziguten, eta Espainiako Auzitegi Nazionalera jo genuen. Hemen, berriro ere ezetzkoa esan zigutenez, Epaitegi gorenera joan ginen. Gorenak gure alde egin zuen

uztailean». Ebazpenaren arabera errendentzio arruntei esker, Peio Zelarainek 22 hilabeteko murrizketak beharko lituzke. Birjina Zelarainen esanetan, espetxe zuzendaritzak ebazpena argia ez zela esan zuen, eta ez zuela beteko. Abokatuak Epaitegi gorenari ebazpena argitzeko eskatu zion, eta honek, errendentzioak 22 hilabetekoak zirela berretsi zuen. Maite Ortizen esanetan, «epaia berriro espetxe zuzendaritzara eraman genuen. Jakin badakigu zerbait erabaki dutela, fiskalari bidali baitiote. Epailearen aurretik pasa ondoren, azken erabakia Auzitegi Nazionalak hartuko du. Espetxe zuzendaritzaren erabakia hurrengo astean ezagutuko dugu guk. Ondoren, Auzitegi Nazionalaren zain egotea tokatuko zaigu».

Zelarainen askatasuna eskatzeko, Villabonan, ostegunero kartelada bat egingo dute 19:00etan, Mintzolatik abiatuta.

## Hileko azken ostirala baino gehiago

Bidegoianen Herrira Eguna antolatu dute gaur; Ibarra Vivonnerako bidaia girotzen ari dira

A. Imaz

Euskal preso eta iheslarien esku-bideen aldeko elkarretaratzeak eta ekimenak biderkatzen ari dira hiletik hilerara. Gaur, irailako azken ostirala izaki, ohiko mobilizazioak egingo dituzte Tolosaldeko eta Leitzaldeko herri gehienetan. Herriratik azaldu dutenez, «iragan astean Tolosaldeko preso eta iheslarien senideen testigantza, euskal preso eta iheslariaren

eskubideen aldeko lanean indarrak biderkatzeko beharra garbi erakutsi digu». Herri mugimenduko kideek bide horretatik jarraitzeko konpromisoa berretsi dute, eta «jendarte zabalari gurekin batera eginkizun honetan aktibatzen deia» luzatu die, besteak beste, azken ostiraleko elkarretaratzean parte hartuz.

### Bidegoian eta Ibarra

Gaur Bidegoianen Herrira Eguna antolatu dute. 19:00etan, Bidaniko frontoi aurreko plazan elkarretaratzea egingo dute, eta ondoren, pilotalekuan, patata tortilla lehiaketa. Egunari amaiera emateko, 21:30ean, *Gazta zati bat* dokumentala botako dute udaleko areto nagusian. Angel Oiarbide, egileetako bat, bertan izango da aurkezpena egiteko asmoz.

Ibarra, azken ostiralaren ondoren herri afaria egingo dute Sugegin. Izena eman beharrik ez dagoenez, bertara agertzeko eskatu die elkarteko kideek herritarrei, 21:00etan. Horrez gain, Herrirak antolatuta, urriaren 12an dispersioaren aurkako elkartasun marxa egingo dute Vivonnera autobusez. Maite Aranalde herritarra bertan aurkitzen da preso, eta elkartasuna azaltzera joango dira bertara ibartarrak. Sendi Ekintza, Zubiaurre eta Alai tabernetan jarri dituzte izena emateko zerrendak, eta bertan egongo dira urriaren 1a arte. Hamalaketakoa eta bazkaria Herrirak jarriko dituela ere esan dute.

### ↓ Azken ostirala

#### GAUR

- Aduna. 20:00etan.
- Alegia. 19:30ean.
- Amezketa. 19:30ean.
- Anoeta. 19:30ean.
- Asteasu. 19:00etan.
- Berrobi. 19:30ean.
- Ibarra. 19:30ean.
- Irura. 19:30ean, plazan.
- Gaztelu. 20:30ean, plazan.
- Ikaztegietak. 20:30ean.
- Txarama. 20:15ean.
- Lizartza. 20:00etan.
- Tolosa. 19:30ean.
- Villabona. 20:00etan.
- Zizurkil. 20:00etan.
- Leitza. 20:00etan.



## harpidedun izateak badu saria

### irabazleak

#### 1 Arregi Jatetxea

Bi laguntzako bazkaria edo afaria

Mari Karmen Goikoetxea Berakoetxea (Tolosa)



Saria jasotzeko erreserba egiteko 2 hilabete: Herriko enparantza, 7 Berastegi Tel.: 943 68 30 59

#### 2 Mikel Izagirre

Ile mozketa bat

Josefa Murua Artola (Tolosa)



Saria jasotzeko erreserba egiteko 2 hilabete: Gorosbel, 27 behea Tolosa Tel.: 943 67 52 49

#### 3 Zabala sagardotegia

Sagardo kaxa bana

Maria Jesus Murua Artola (Alegia) Marijo Belaunzaran Jauregi (Berrobi)



Saridunek etxean jasoko dute kaxa

Garagartza baserria Aduna Tel.: 943 69 07 74 www.rzabala.com

#### 4 EUREKA! zientzi museoa

Bi laguntzat bina sarrera

Kontxi Goitia Balerdi (Amezketa) Jesus Maria Irazusta Imaz (Anoeta)



Saridunek bina sarrera izango dituzte leihatilan, bi hilabetez Mikeletegi, 43-45 Donostia Tel.: 943 01 24 78

Juanfe Garces • 'Leku hutsak, hitz beteak' dokumentalaren errealizatailea

## «Zinemaldian egotea jada sari handia izan da»

Joxemi Saizar Tolosa

Atzo estreinatu zen Donostiako Zinemaldian Joxeanjel Arbelaitzen *Leku hutsak, hitz beteak* dokumentala. Gaur eta bihar ere ikusi ahal izango da Bernardo Atxaga idazleari buruko lana Zinemira sailean, eta irudien arduraduna Juanfe Garces Gabilondo (Tolosa, 1972) da. Gaur egun Digitalak ekoiztetxean lan egiten du errealizataile gisa, askotan ETBrako.

Madrilen ikasi zuen eta urte batzuetan zehar Telemadrid katean era askotako programak egin zituen kamera eta errealizadore laguntzaile gisa. Azken lan honetaz «pertsonala, polita eta aberasgarria» zela esan zion HITZari pasa den abenduan egindako elkarrizketan. Atxagaz «hizkera, etorria, memoria handia, sentsibiltasuna», dituela nabarmendu du.

### Nola sortu zen dokumental honen ideia?

Joxeanjel Arbelaitzi bururatu zitzaion ideia Bernardo Atxagarekin afaltzen ari zen gau batean. Dokumentalaren gidoia Atxaga berak egin du eta bere nobela eta poemak sorburuaz hitz egiten du. Bere erreferenteak zein izan diren aipatzen du, baita bere bizitzan inpresio handia egin dioten gertakizunak eta lekuak ere, esate baterako, Bilbora iritsi zenean izan zituen lehendabiziko sentsazioak, eta abar.

### Zein izan da zure lana?

Dokumentalaren grabazioaz, errealizazioaz eta ekoizti ondorengo lanez arduratu naiz.

### Nolakoa izan zen grabazio lana?

Hiru lekutan grabatu dugu: Zaldudondoko etxean, Asteasun eta inguruetan eta Bilbon. Denborari dagokionez, hamar bat egunetan grabatu genuen eta ekoizti ondorengo lanak hilabete inguru eramazid.

### Atxaga ezagutzen zenuen? Zerk harritu zaitu gehien?

Ez, ez nuen Atxaga pertsonalki ezagutzen. Haren hurbiltasuna, umiltasuna eta umorea izan dira deigarrienak niretzat.

### Zer espero duzue Donostiako Zinemalditik?

Zinemaldian egotea jada sari handia izan da guretzat. Pertsonalki Bernardo Atxaga bera ezagutzea izan da aberasgarriena.

### ↓ Zinemaldiko emanaldiak

■ Gaur, 20:30ean, Principe zinemako 6. aretoan.

■ Bihar, 19:30ean, Principe zinemako 10. aretoan.

### Zein da lan honen helburua, telebistaz eman, aretoetan...?

Donostiako Zinemaldian Zinemira sailean botako dute areto desberdinetan, eta ETBk ere laster emitituko du.

### Zein proiektu dituzu orain, eskuartean?

Une honetan Digitalak ekoiztetxean lanean ari naiz, hainbat proiektutan. Laster, ETBren 30. urtemuga dela eta, denbora tarte horretan gertatutakoa kontatuko duen programa multzoan parte hartuko dut. Errealizazio lanaren ardura izango da nirea.



HITZA

nomina satisfaction

kutxabank k

1.001 Kutxabank Esperientzia zozketatuko ditugu:

Smartbox

Bi lagunentzako ostaluko gau bana + afari bana

Kutxabanken zure nominak satisfazio ugari eman diezazula nahi dugu

kutxa gehiago gara.

nomina pertsonaileko zozketaren emaitzari buruzko informazioa 2012ko urriaren 31an helaraziko dute besterik gabe. Zuzenean gurekin: www.kutxa.net/webgunea/kutxabank.

Tolosaldea

Irudia o Lizartza



SAI BAT HERRIKO KALEETAN

Bisitari berezia izan dute azken egunetan lizartzarrek. Sai edo putre bat Lizartzako etxeetako teilatuetan egon da, eta kaleetara ere jaitsi da. Azkenean, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak hegaztia hartu dute beste leku egokiago batera eramateko. HITZA

Irudia o Leaburu



GIRO POLITA ERRETIRODUNEN EGUNEAN

Euren eguna ospatu zuten iragan igandean Leaburu-Txaramako erretirodunek. 46 herritar elkartu ziren, eta egun polita igaro zuten. Meza eta gero dantzarien saioa izan zuten, bazkaria ondoren,

eta bertsolari eta trikitilariak. Herriko enpresa eta laguntzaileek emandako opariaren zozketa ere egin zuten. Udalak eskerrak eman dizkie laguntzaile guztiei, batik bat bazkarian lagundu zutenei. HITZA

Azkue Eguna antolatzeko prestaketetan ari dira bertako bizilagunak

I. Terradillos Ibarra

Ibarrako Azkue auzoko bizilagun talde bat Azkue Eguna antolatzen ari da. Lehen bileraren ostean, berriro bilduko dira urriaren 1ean, astelehena, 20:00etan auzoko Gizarte Zerbitzuen lokalean. Auzotar guztiak gonbidatzen dituzte bileran parte hartzera.

Azkue Eguna urriaren 20an izango da eta eguna «antidiana» batekin hasiko dute. Haurrak izango dira bertako musikariak, beraiek egindako perkusio instrumentuekin edota bestelako musika tresnekin ariko direlarik. Perkusio tresnak egiteko eta baita kalean jartzeko apaingarriak ere, auzoko haur eta gazte guztiak gonbidatzen dituzte urriaren 12an, ostirala, 10:00etan Gizarte Zerbitzuen lokalera azalaztera, tresna eta apaingarriak auzolanean egiteko.

Naturaz eta zaldiaz gozatzea xede duen herri lasterketa, etzi

V. Bedaioko Zaldi Raid lasterketa egingo dute 35 kilometroko luzera duen ibilbidearekin; bazkaria ere izango da

Iñigo Terradillos Bedaio

Bosgarren urtez zaldi herri lasterketa antolatu du Bedaion Artubi kultur elkarteak, Tolosako Udalaren laguntzarekin. Etzi, igandean, izango da, eta zaldunek 35 kilometro inguruko ibilbidea egin beharko dute. Lasterketaren amaieran bazkarian elkartzeko aukera ere izango da.

Raid lasteketa erresistentzi proba bat da, eta antolatzaileek azaldutakoaren arabera, naturaz eta zaldiaz gozatzea du helburu igandeko ekimenak. Bedaiotik irtengo dira zaldunak 09:00etan, eta bi zati izango ditu. Zati bakoitzaren amaieran albatariaren kontrola igaro beharko dute zaldiek.



Pasa den urteko Zaldi Raid probako une bat. HITZA

Izena eman nahi dutenek 620 199 166 telefono zenbakira hots egin ez edo [aiestaki@hotmail.com](mailto:aiestaki@hotmail.com) edo [bedaioerrota@gmail.com](mailto:bedaioerrota@gmail.com) helbidera idatzita egin dezakete. 15 euro ordaindu behar da lasterketan parte hartzeko, eta Abaetxe

eratutako erakutsi behar zaie albatariari parte hartu ahal izateko.

Iaz 30 zaldunek hartu zuten parte, eta antolatzaileek adierazi dutenez, asko dira pasa den urteko esperientzia errepikatu asmoz dagoeneko izena eman dutenak.

→ Laburrak

Kultur etxeko tailerretan izena eman daiteke

**IBARRA** ▶ Ikasturte honetan eskainiko dituzten kultur lantegietan izena emateko aukera zabaldu dute. Urriaren 10era bitarte egin ahal da matrikula. Aurten, sabel-dantza, egur taila, ehoziriak, altzariak zaharberritzea eta konpontzea, pintura, eskulanak eta arropa konpontzea izango dira herritarren eskura jarri dituztenak.

Guraso Eskolan matrikula egiteko aukera zabalik

**IBARRA** ▶ Uzturpe ikastolak eta Ibarrako Udalak Guraso Eskola antolatu dute. Teoria emango dute, ariketa praktikoak eta esperientzien elkar trukatzea. Parte hartu nahi dutenek urriaren 5era arte dute matrikula egiteko aukera. Informazio gehiagorako 943 67 04 15 edo 943 67 12 99ra dei daiteke.

Hilberriak eta urteurrenak

**2012ko USATEGIEN ENKANTEA BIRIGARRO ETA USOA ARESO (NAFARROA)**

TEL 948-510 327-608-928 626

Donostiatik 20 minututara Paradetaraino sarbidea kotxez

Enkantea Udaletxeko Batzar Aretoan burutuko da.

1go enkantea: irailaren 22an, larunbata, 19:00 ordutan  
2. enkantea: irailaren 29an, larunbata, 19:00 ordutan

**ESKELAK**

943-65 56 95

[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

-Esker onak-  
**Joxemi Gurrutxaga Lasa**




Zu sortu zinen enbor beretik sortuko dira besteak borroka honetan irauango dute zuhaitz ardaxka gazteak.

**Eldualngo Ezker Abertzalea**  
Eldualnen, 2012ko irailaren 28an

Azken urteetako jendetsuena izan da aurtengo Diada edo Kataluniaren aberri eguna, eta independentziaren aldeko oihu eta aldarriek oihartzun handia izan dute nazioartean; hauteskundeak azaroaren 25era aurreratu dituzte, eta autodeterminazioaren alde herri galdeketa egitea onartu du Kataluniako legebiltzarrak

**Joxe Arias** • Gaztelun bizi den kataluniarra

## «Hain lotsagarria den egoera honetatik ateratzeko irtenbidea nahi du jendeak»

**Iñigo Terradillos** Gaztelu

Casteldefels (Bartzelona, Herrialde Katalanak) herrikoa da jaiotzez Joxe Arias, baina, azken 7 urteetan Euskal Herrian bizi da. Azken bi urteetan Gaztelun topatu du bizilekua. Krisiak kataluniarren egonezina lehortu egin duela dio.

**Nola ari zara bizitzen Kataluniako azken egunetako gertaerak?**

Badirudi jendea haserre dagoela. Nahikoa dela esateko garaia iritsi da. Orain urtebete, agian, egoera ezberdina zen, baina, orain, jendeak konponbidea nahi du, eta ez dagoela atzera bueltarik dirudi, gainera. Errepublikat bat, beste estatu independente bat... ez dakit zer, baina beste zerbat. Hain lotsagarria den egoera honetatik ateratzeko irtenbide bat.

**Zergatik da horrelakoa egoera?**

Esaterako, anbulatorioak ixten ari dira. Oinarriko zerbitzuak, beraz, murrizten ari dira, eta jen-

dea oso haserre dago horren ondorioz. Krisiak lehortu du jendearen ezinezona, eta krisiaren ondorioz Madrildik hartutako neurriek. Arrazoi ekonomikoek indartu egin dute jendearen independentzia aldarria.

**Zer sentitu zenuen Diada egunean Bartzelonako kaleetan hainbeste jende ikustean?**

Izugarrria izan zen herritarren erantzuna. Poza sentitu nuen. Ea aurrera doan eta mugimendua dagoen. Gauzak eztabaidatzeko unea da. Monarkia kanporatzeko garaia da, eta ea behintzat errepublikaren gaiaz hitz egiten den edo erreferendum bat egiten den. Eta, noski, autodeterminazioaren inguruan ere berdin. Baina, jende ugari aldarri batekin atera arren, egunean oso oihkoa dena gertatu Madrilen aldetik, hau da, herritarren iritzia gutxiestea, beraz, ez dakit aurrera begira zer gertatu daitekeen.

**Autodeterminazioaren alde herri**



I.T.

**galdeketa egitea onartu du Kataluniako legebiltzarrak.**

CIU alderdiak joko bikoitza egiten du beti. Esaterako, Kataluniako Estatu berria onartu zen legebiltzarrean, eta horrekin CIU Zapaterorekin negoziatzera joan zen. Horregatik, ez direla fidagarriak iruditzen zait.

**Orain ere gauza bera gertatu dela uste al duzu?**

Artur Mas Kataluniako Generalitateko presidentea populista dela iruditzen zait. Jendearen bultzada baliatu nahi du. Baina, jendeak esperantza eta ilusio handia du jarrira orain, eta horren aurka ezin da joan.

**Zer gertatu dela uste duzu?**

Herri galdeketa egitea posible da. Eta jendeak baietza ematea. Gero arazoak egongo dira Espainiako

gobernuarekin, konstituzionalarekin eta abar. Horrela egongo gara hilabete batzuetan. Baina, hortik aurrera ez dakit, izan ere, Espainiak ez du onartuko kataluniarren iritzia.

**Zer iruditzen zaizu PSOE alderdiak Espainiako konstituzioari buruz esan dituenak?**

Asko harrizten nau. Kataluniako PSC beti izan da federalista. PSOE, berriz, PPren antzekoa da gehienetan, oso zentralista da. Beraz, orain federalismoaren alde dagoela esatea harrizkoa da. Surflarien modukoak dira politikariak, beti olatuak baliatuz.

**Nola alderatuko zenuke egun Katalunian bizi duten egoera Euskal Herrikoarekin?**

Antzekoa, eta era berean, desberdina dela esango nuke. Euskal Herriaren erpresio handiagoa egon da, eta hori nabari da. Euskal Herria autodeterminazioaren gaiarekin aurreratua zegoela zirudien, baina, badirudi orain Kataluniak aurrerapauso handi bat eman duela. Nolanahi ere, batetik bestearengatik asko du ikasteko. Lurralde batek zerbat lortuko balu oso ona izango litzateke bestearengatik. Gainera, oso erlatzio polita dago bi lurraldeen artean, eta hori baliatzea ere garrantzitsua da.

**Añoa Gorostidi** • Katalunian bizi den billabonatarra

## «Atzera bueltarik ez duen bidea hasi denaren sentsazioa dago Katalunian»

**I. Terradillos** Villabona

Añoa Gorostidi billabonatarra Bartzelonan bizi da azken 12 urteetan. Unibertitate ikasketekin jarraitzeko aitzakiaz joan zen hara, eta bertan geratu zen. Institutu batean DBH irakaslea da egun. Katalunian ilusiozko giroa nabari dela dio.

**Nola ari zara bizitzen Kataluniako azken egunetako gertaerak?**

Irailaren 11n, Kataluniako Diada egunean, inoiz ikusi eta bizitu dudana manifestazio jendetsuena zelako inpresioa izan nuen, baita ilusio berezi batez ospatzen ari girela ere. Pare bat ordu pasa genituen geldirik manifestazio buzuak ezin zuelako aurrera egin. Hasiera ordua baino lau bat ordu geroago pasatu nintzen berriz ibilbidearen hasiera behar zuenetik eta oraindik jendez gainezka zegoen! Eta sentsazioa, atzera bueltarik ez zuen bidea hasi genuenekoa.

**Zergatik izan da berezia aurtengo Diada?**

Nire ikuspegitik bereziena independentziaren alde inoiz egin den manifestazio jendetsuena izatea litzateke, izan ere *Catalunya, un nou estat d'Europa* lelopean atera zen manifestazioan PPK ez beste alderdi politiko guztiak hartu zuten parte, baita Kataluniako sare sozialaren gehiengoak ere.

**Zergatik irten da hainbeste jende orain independentziaren lelopean?**

Agian, estatuak, eta PPren gobernuak, batez ere, jarraiki dion politikak eragin du. Fiskalitateari buruzko eztabaida eta krisi ekonomikoari emandako erantzun kaxkarra ere aipatuko nituzke.

**Ze giro sumatzen duzu?**

Ilusiozko giroa nabari da sektore katalanetan, etorkizun independentea gertuago sumatzen dutetik. Hala ere, diferentzia bat markatuko nuke Katalunia eta Bartzelona eta haren metropoli barrutiaren artean.



HITZA

**Aurretik holakorik bizitu izan al duzu?**

Aldaketa garaiko ilusioan pentsatuta, Euskal Herrian gertatutako hainbat momentu etortzen zaizkit gogora, bai Lizarra-Garaziko garaia edota gaur egungoa. Hala ere, kontu honek hartu duen bidean pentsatuta, aurretik bizitu ez dugun garaia datorkigula iruditzen zait, batik bat azken

egunetan entzundakoak entzunda: Kataluniako legebiltzarrean erreferenduma egiteko hartu duten erabakia, estatu federalari buruz Rubalcabak eginiko adierazpenak eta abar.

**Ze aldaketa nabari da?**

Kalean eta egunerokoan deigarriena Diadaz geroztik balkoietan zintzilikatutako senyera eta estelada kopurua iruditzen zait. Bestetik, iragan asteburuko Bartzelona Mercé festetan izan naizen ekitaldietan independentziaren aldeko oihuak entzun izana.

**Ze uste duzu gertatu dela orain? Ze espero du jendeak?**

Masen gobernuak erantzun beharra dauka orain. Diada egunean sortutako ilusioa eta esperantza aurrera egiteko beharra bilakatu zaizkio CIUren gobernuari eta ANC (Assemblea Nacional de Catalunya) delakoak markatuta dauka egin beharreko bidea. Jendeak espero duenaz hainbat iritzi entzun ditut. Kataluniarra baino

ezkertiarra gona dena CIUren politika pribatizatzailearekin dabil kezkatuta eta horregatik PSC ireki berri den bidean sartzearen esperoan dago. Bartzuk berriz aipatzen dute hirukoaren aukera. Alderdi kataluniarrak aspaldi amestutako eskenatokia aurrekusten daude. Metropoli barrutiko populazioaren gehiengo egoera ekonomikoarekin arduratua dagoela iruditzen zait. 15Mren barruan ere izan dira independentzia aldarrikatzeko baino egoera sozio-ekonomikoa eta politika pribatizatzaileak salatuzko garaia dela dioten ahotsak.

**Euskal Herriarekin nola alderatuko zenuke Kataluniako egoera?**

Bat batean, Katalunian indar politiko gehiago dago gaur egun Espainiarekin hartu-emana aldatzearen alde, dela independentzia edo sezesioa, dela estatu federala lortzeko bideak planteatzen, hau da, Espainiako konstituzioa dudan jartzen, PSE ez bezela. Hala ere, oinarrietan, herria bera inplikatuago ikusten dut Euskal Herriaren eredu berri baten alde Katalunian baino. Hori, gipuzkoarra eta Bartzelonan bizi den herritarra naizela kontuan izanda, izan ere, ez baita gauza bera nafarra edo arabarra izan eta Gironan edo Vic-en bizi.



≈ 21°  
≈ 14°

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	19°
HOTZENA	15°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarra@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@hitza.info

Tolosa Herria  
Hedabideak  
SM-ko kideak:

BERTAKO  
HEDABIDEAK



Galtzaundi  
euskara  
taldea



eta Tolosaldeko  
eta Leizaldeko  
beste 77 eragile

Hitza-k  
Bai  
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

## Agenda

### DEIALDIAK

■ **Bidegoian.** Kultur Astearen barruan, gaur, Herrira Eguna: 19:00etan, elkarretaratzea; 19:30ean, patata tortilla lehia-keta; eta 21:30ean, *Gazta zati bat* dokumentala udaletxean. Bihar Haurren Eguna: 15:00etan mural margoketa; 17:00etan, *Marmuak eta beste bizilagun batzuk* gaztetxoentzako antzezlan. Igandean, Azoka Eguna Goiazko plazan.

■ **Tolosa.** Gorren Nazioarteko Eguna, bihar, Gainditzenek antolatutako ohi duen Gorren Komunitatearen IX. Sentsibilizazio As-

tearen barruan: 10:00etatik 14:00etara, pertsona gorren ar-tisautza lanak, Trianguloan; 10:00etan zeinu dantza eskola, kultur etxean; 10:30ean traine-ruan lagunarteko lehia Orián; 11:00etatik 13:00etara haurren-tzako jolasak, Trianguloan; 12:00etan manifestuaren ira-kurketa, Trianguloan; eta 17:00etan *Isiltasuna dantzan* ikuskizuna, Leidorren; 18:00etan *Cinco horas con Ma-río* antzezlan, Leidorren.

### ZINEMA

■ **Tolosa.** Leidor aretoan igan-

dean *Piratas* haurrentzako fil-ma 17:00etan eta *Todos teni-mos un plan* 19:30ean. Astele-henean, ikuslearen eguna, *To-dos tenemos un plan*, 20:30ean.

### ARTE ESZENIKOAK

■ **Tolosa.** *Purga* antzezlan, gaur, 20:30ean, Leidorren.  
■ **Tolosa.** Zikloia 2012 antzerki jaialdia gaur, 22:30ean, kultur etxean. Sarrerak 6 euro balio du eta emanaldiak euskaraz izan-go dira. Talde hauek ariko dira: Porrustaka, Tic-Tac, Hortzaka eta Lorena Arangoa.

■ **Tolosa.** Topic zentroak anto-latuta, SOS Titelles taldearen *In skopum et rubrum* lana ikusi ahal izango da asteburuan Eus-kal Herria plazan, doan. Bihar 18:30ean ikusi ahal izango da, eta igandean, 13:30ean.

### MUSIKA

■ **Tolosa.** Bonberenean, gaur, Zuloak 22:30ean, eta bihar, ordu berean, EH! eta Leo Nudo-zurdo.  
■ **Tolosa.** Hodei abesbatza, bihar, 20:30ean Santa Klaran. Felipe Gorritiren lanak abestuko dituzte.

## Agurrak



### Zorionak Iñaki!

Gaur 65 urte. Animo eta eutsi goiari Beizama! Muxu handi bat familia eta lagunentz.



### Urte askoan!

Iratz Balerdi Amundarain (Irura).  
Gaur 3 urte! Zorionak eta muxuak familiaren partez.

## Farmaziak

### GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28. Gauekoa: Etxebeste, J. M. Gerni-kako arbola, 3. 943 65 10 40.  
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

### BIHAR

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gaue-koa: Azpiroz, L. Amartzuzurdo, 9. 943 67 51 18.  
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

### ETZI

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gaue-koa: Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.  
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

### ETZIDAMU

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gaue-koa: Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.  
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112. ■ **Iruztzun.** Gastea-rena, M. Amaya kalea. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

**Tolosan etxe adosatua salgai:**  
eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukalde, bi autorentzako garajea, txokoa, jardina eta trastelekua.

Interesatuak, deitu  
678 267657  
telefono zenbakira.

## Elketa Jatetxea



- ◆ **Eguneko menua** (astelohenerik ostiralera)
- ◆ **Plater konbinatuak** (ostiral, larunbat eta igande gauetan)
- ◆ **Menu berezia** (larunbat eta igande eguerditan)

Erreserba egiteko: San Miguel bailara, 2 • Hernialde • 943 65 21 16  
www.elketa.com